

KANPAINA CARITASEN, PASTORAL BARRUTIEN ETA PARROKIEN ALDE

**KANPAINA:
EN SU JUSTA MEDIDA. NEURRIZ
BIZI**

2026KO MARTXOAREN 22A

**GARIZUMAKO
5. DOMEKA (A)**



Caritas
Bizkaia 1956 - 2026

CAMPAÑA DE CÁRITAS, UNIDADES PASTORALES Y PARROQUIAS

**CAMPAÑA:
EN SU JUSTA MEDIDA. NEURRIZ
BIZI**

22 DE MARZO DE 2026

**DOMINGO 5 DE
CUARESMA (A)**

Liturgia lagungarriak

Atarikoak:

- Gogoratu ezinbestekoa dala lagungarriok alkarte bakotxaren gorabeheretara moldatzea luzera eta hizkerari dagokienez.
- Ondo legoke Caritaseko boluntarioek gaurko ospakizunetan eraginkortasunez parte hartzea.
- Egun egokia da gaurkoa, eukaristia liturgia beren-beregi zaintzeko: ogi eta ardaoaren aurkezpena eta altararen behealdean itziko dan kolektarena. Holan egiten bada, diru-batzearen arrazoiak azaltzeko oharra irakurri arte ez gara dirua batzen hasiko. Eukaristia otoitza nabarmendu gorespenak kantatuz, ogia era esanguratsuan zatitu "Jaungoikoaren Bildotsa" abesten dan bitartean, jaunartzea...

Subsidios litúrgicos

Notas previas:

- Recordemos la necesidad de que estos subsidios se adapten en su extensión y lenguaje a las circunstancias de cada comunidad.
- Estaría bien que el voluntariado de Cáritas participara activamente en las celebraciones de hoy.
- Hoy es un día apropiado para cuidar especialmente la liturgia eucarística: la presentación del pan y el vino y también de la colecta, que se deja a los pies del altar. Si se hace así quizá convendría no empezar a hacerla hasta que se haya leído pausadamente la monición que la motiva. Destacar la plegaria eucarística con las aclamaciones cantadas, la fracción del pan significativamente hecha mientras se canta "Cordero de Dios", la comunión...

SARRERAKO OHARRA

Anai-arrebok: Garizuma aldiko bosgarren domekan gagoz. Gaurko ospakizunean, Lazaroren biztueraren pasartea ardatz, biziaz berba egingo jaku eta bizia eta berbikundea bizitzera deituko. Jesus heriotza baino indartsuagoa da; bizia emonez, eta ugari emon be, heltzen da bere bizitzaren azkenera.

Caritasek dei egiten deusku domeka honetan, Garizuma-aldi hau bihotz-barritzeko aukera lez bizi dagigun. BATERA, EN UNIDAD goiburua proposatu dabe aldi honetarako, eta bihotz-barritze hori zelan gauzatu zehazten deusku, hau da, ezin dogu bakarka egin, nahitaezkoa da beste batzukaz batera, alkartean, egitea.

MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos: Hemos llegado al quinto domingo de Cuaresma. Toda la celebración de hoy nos va a hablar e invitar a la vida. El relato de la resurrección de Lázaro es una gran catequesis sobre la vida y la fe en la resurrección. Jesús es más fuerte que la muerte; termina su vida dando vida y vida en plenitud.

Cáritas se hace presente entre nosotros este domingo y nos invita a vivir este tiempo de Cuaresma como oportunidad para la conversión. El lema propuesto en esta Cuaresma es: BATERA, EN UNIDAD, y nos concreta el modo de esa conversión, es una llamada exigente. No se trata de una conversión aislada, nos invita a la conversión como proceso compartido, comunitario.

KANPAINA CARITASEN, PASTORAL BARRUTIEN ETA PARROKIEN ALDE



CAMPAÑA DE CÁRITAS, UNIDADES PASTORALES Y PARROQUIAS

Norbere bihotz-barritzerako eta, aldi berean, alkarte erabarritzerako bidea da. Kontua ez da bakarka "hobetzea", alkarregaz alkartasun, senidetasun eta Ebanjelioaganako leialtasun handiagoko Eleizaranzko bidean aurrera egitea baino.

Zutunik, abestuz ekingo deusagu Eukaristiari.

SARRERAKO ABESTIA

ABADEAREN AGURRA

Jesukristo Biziaren Jaunaren grazia eta bakea zuekin.

DAMU OTOITZA

Jesus Jaunak dei egiten deusku, bihotz-barritze eta parkamenaren bitartez, heriotzatik Jainkoaren Bizira igaro gaitez. Apaltasunez, eskatu daigun gure pekatuen parkamena.

- Zure Espiritua herriaren gainera isurtzen dozu bidea egin daian eta bizi daiten. Erruki, Jauna.
- Gure hilobietatik, heriotzaz eta iluntasunez bustitako egoeretatik ataraten gaituzu. Kristo, erruki.
- Hainbeste pertsonari bizimodu duina eta benetakoa izatea galarazoten deusden harlauzak altxatzeko dinoskuzu. Erruki, Jauna.

OHARRA 1. IRAKURGAIARI

Lehenengo irakurgaiari, Jainkoaren egintzaren ahalmenean uste osoa izan behar dogula dino Ezekiel profetak. Harek bere espirtua isuriko dau eta herria bizira, bere lurrera bueltatuko dau. Egun ha, kreazino barriaren antzekoa izango da.

OHARRA 2. IRAKURGAIARI

Bigarren irakurgaiari, Paulo apostoluak haragia eta espirtua gizon-emakumeengan eragina daben alderdi bi lez bereizten ditu haragia eta espirtua. Haragian bizitzea, giza pentsaeraren arabera bizitzea da; espirtuan bizitzea, Jainkoaren indar salbatzailearen eragina onartzea.

Un camino de conversión personal, pero también de renovación comunitaria. No se trata solo de "mejorar" individualmente, sino de caminar conjuntamente hacia una Iglesia más comunión, más fraterna y más fiel al Evangelio.

Iniciemos la eucaristía unidos en el canto y puestos de pie.

CANTO DE ENTRADA

SALUDO DEL PRESIDENTE

La gracia y la paz de Jesucristo, el Señor de la Vida, estén con todos vosotros.

ACTO PENITENCIAL

El Señor Jesús, a través de la conversión y el perdón, nos llama a pasar de la muerte a la Vida de Dios. Con sencillez y humildad, pidamos perdón por nuestros pecados.

- Tú que infundes tu Espíritu en tu pueblo para que camine y viva: Señor, ten piedad.
- Tú que nos haces salir de nuestros sepulcros, de nuestras situaciones de muerte y oscuridad: Cristo, ten piedad.
- Tú que nos invitas a levantar las losas que impiden una vida auténtica a tantos seres humanos: Señor, ten piedad.

MONICIÓN A LA 1ª LECTURA

En la primera lectura, el profeta Ezequiel afirma que es necesario esperar en el poder de la acción de Dios, que infundirá su espíritu y devolverá al pueblo a la vida y a su tierra. Aquel día será como una nueva creación.

MONICIÓN A LA 2ª LECTURA

En la segunda lectura, el apóstol Pablo distingue carne y espíritu como dos dimensiones que actúan en la persona humana. Vivir en la carne es vivir según la mentalidad humana; vivir en el espíritu es dejarse llevar por la fuerza salvadora de Dios.

JAINKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Apaltasunez, Biziaren Jainkoari gure bihotza zabaldu eta gizadi osoaren beharrianak aurkeztuko deusaguz Biziaren Jainkoari.

- Gizon-emakume txirotuaganako maitasuna eraginkortasun eta protagonismotik ez ezik buruz buruko alkartzetik sortzen dala gogoratu deusku Leon aita santuak. Eleizak gogoratu dagiala ez dagokiola pertsona horreek ordezkatzea edo euren izenean berba egitea, eta pertsona horreek, euren bizitza, iraupen eta itxaropenagaitik, ebanjelizatzaile dituala. Eskatu deiogun Jaunari.
- Sasoi gogor eta gatxa langabezia, behin-behineko lana, etxebizitza jadesteko aukerarik eza, etorkizun eta aukerarik eza jasaten dauan lagun askorentzat, familia askorentzat. Herrien gobernuaz arduratzen diranak saiatu daitezala gizarte bazterketa eta desbardintasunik eragiten ez dauan ekonomia antolatzen, eta gizabanako eta herrien oinarritzko eskubideak bermatu dagiezala. Eskatu deiogun Jaunari.
- Aurton, Caritasen 70. urteurrena ospatzen dihardugu. Bizkaiko Eleizak 70 urtez ahuleziaz eta bazterketak bustitako egoerei aurre egiteko agertutako konpromisoa gogoratzen dihardugu. Caritasek etenbarik dei egin deigula gure bizimodu eta kontsumitzeko eran egin daikeguzan aldaketa txiki baizen esanguratsuen inguruan gogoeta egin dagigun, apurka-apurka, legamiaren antera, eraldaketa handiagoen eragile izan daitezkan. Eskatu deiogun Jaunari.
- Txerotuen eta belaunaldi barrien aldeko betebeharrak morala dogu. Erreinuaren zeinu bizi izan gaitezala, bizi zabaldu dagigula soiltasunez biziz, beste batzuk, beste barik, bizitzeko aukera izan dagien. Eskatu deiogun Jaunari.

Aita bizi-emoilea, begiratu errukiz gaur heriotzaren ilunpetan bizi garanoi eta, bizi dakarren zure Espirituaren eraginez, barritu eta aldatu gure bizitzak. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

ORACIÓN UNIVERSAL

Con actitud humilde le abrimos el corazón al Dios de la Vida y le presentamos las necesidades de toda la humanidad.

- El papa León nos recuerda que el amor a las personas empobrecidas no nace de la eficacia ni del protagonismo, sino del encuentro real con personas concretas. Que la Iglesia recuerde siempre que no está llamada a sustituirlas ni hablar por ellas sin ellas, sino a dejarse evangelizar también por su vida, por su resistencia y por su esperanza. Roguemos al Señor / Eskatu deiogun Jaunari.
- Tiempo duro y difícil para muchísimas personas, familias enteras ven día a día que la situación de desempleo, empleo precario, imposibilidad de acceso a la vivienda la falta de perspectivas y oportunidades derrumba sus expectativas de futuro. Que quienes son responsables en los gobiernos de los pueblos se empeñen en organizar la economía de forma que no produzca exclusión social y desigualdades, y garanticen los derechos fundamentales de las personas y de los pueblos. Roguemos al Señor / Eskatu deiogun Jaunari.
- Este año celebramos el 70 aniversario de Caritas. Setenta años de compromiso de la Iglesia de Bizkaia con las situaciones de vulnerabilidad y exclusión. Que Caritas no deje de invitar a reflexionar sobre pequeños pero significativos cambios que podemos hacer en nuestro estilo de vida y de consumo, que van a ir produciendo poco a poco, como levadura, transformaciones mayores. Roguemos al Señor / Eskatu deiogun Jaunari.
- Tenemos una obligación moral hacia las personas empobrecidas y hacia las generaciones futuras. Que nosotros seamos signos vivos del Reino, comuniquemos vida viviendo sencillamente para que otros sencillamente puedan vivir. Roguemos al Señor / Eskatu deiogun Jaunari.

Padre y autor de la vida, mira compasivo a quienes hoy vivimos en sombras de muerte y, por la acción vivificadora de tu Espíritu, renueva y transforma nuestras vidas. Por Jesucristo, nuestro Señor.

KANPAINA CARITASEN, PASTORAL BARRUTIEN ETA PARROKIEN ALDE



CAMPAÑA DE CÁRITAS, UNIDADES PASTORALES Y PARROQUIAS

OHARRA CARITASEN ALDEKO DIRU-BATZEARI

Gaur batu daiten dirua eleizbarrutiko Caritasentzat izango da. Onuradunen izenean, eskerrik asko guztioi eskuzabaltasunez jokatzegaitik.

JAUNARTZE OSTEOKO ISILTASUNEAN

Jainkoaren logika

Kosta ahala kosta arrakasta izateko dinoste,
eroso ibiltzeko, egundo be duda-mudatan ibili barik,
beti be egoeren, jentearen, neure buruaren gaineko
nagusitasuna erakutsiz.

Nire izena letra ederrez txartel noblean
idazteko dinoste,
inprimatze-kalitatea dalako balekoa
eta estiloa, tituluak, maila eta aberastasuna
harro erakustea komeni dalako.

Dana lotuta dodala,
etorkizuna ziurtatuta eta
oraina menderatuta dodazala
egiaztatzeko dinoste,
holan topera bizi ahal izateko.

Baina, Zu etorri, eta barrez hartzen dozuz aholkuok,
eta, goitik, pertsonak ez dirala ikusten
dinostazu,
nire izena oparitutako orduetan idatzi dagidala,
nire bizitzako ate irekietan,
hurkoari laguntzeko eskainitako eskuetan

Zu etorri eta nire ordena desordenatu egiten dozu,
eta amildegira salto egiteko dinostazu.
Eta mugabako Bizia apalengan,
otzanengan, txikiengan eta behartsuengan
datzala gogoratzen deustazu.

Jose Maria Rodriguez Olaizola

MOTIVACIÓN A LA COLECTA

La colecta de hoy será destinada a Cáritas Diocesana.
En nombre de quienes se han de beneficiar de ella,
gracias a todos por vuestra generosidad.

ORACIÓN DURANTE EL SILENCIO DE LA COMUNIÓN

La lógica de Dios

Me dicen que triunfe a toda costa,
que pise fuerte, sin vacilar jamás,
mostrando siempre dominio de las situaciones,
de las gentes, de mí mismo.

Me dicen que escriba mi nombre
con letras hermosas en tarjeta noble,
que la impresión es lo que cuenta
y hay que lucir estilo, títulos, rango y riqueza.

Me dicen que me cerciore
de tener todo bien atado,
de asegurar el futuro,
de dominar el presente, para así vivir al límite.

Pero llegas tú y te ríes de esos consejos,
y me dices que, desde arriba,
no se ve a las personas,
que escriba mi nombre en las horas regaladas,
en las puertas abiertas de mi vida,
en las manos ofrecidas para apoyar al próximo.

Llegas tú y descolocas mi orden,
y me dices que salte al vacío.
Y me recuerdas que es en los sencillos,
los mansos, los pequeños y los pobres
donde está la Vida sin límite.

José María Rodríguez Olaizola